

**Euskal Autonomia Erkidegoko
zebra muskuiluaren (*Dreissena
polymorpha*) larben
jarraipenerako sarea
(URA/003A/2017)**

TXOSTEN LABURTUA

Behin betiko txostena 2017

Ekolur-Anbiotek ABEE

AGIRI MOTA: Urteko laburpena.

AGIRIAREN TITULOA: Euskal Autonomia Erkidegoko zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) larben jarraipenerako sarea (URA/003A/2017).

EGILEA: Anbiotek-Ekolur Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (ABEE). Barne erref LA20161106.

TEKNIKARI ARDURADUNAK: Henar Fraile Fraile, Manu Rubio Etxarte, Begoña Gartzia de Bikuña, Imanol Cia Abaurre eta Alberto Aguirre Gaitero (ABEEren arduraduna).

LAGUNTZAILEAK: Ana Felipe Díaz, Jesús Arrate Jorrín, José Manuel Leonardo Ibarrola, Pedro Areta Morondo, Salvador Luján Bárcena eta Xabier Vegas López de Uralde

DATA: 2018ko urtarrila.

Aurkibidea

Euskal Autonomia Erkidegoko zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) larben jarraipenerako sarea

Txosten laburtua. 2017.

1. Egindako lanen laburpena	1
1.1. EAEko zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarea	1
2. Emaidza eta ondorio nagusiak	3

1.

Egindako lanen laburpena

2017 urtean Ekolur-Anbiotek Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (aurrerantzean, Ekolur-Anbiotek ABEE) “EAEko zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarea (2017-2019 kanpainak)” izeneko lanaren esleipenduna izan zen. URA/003A/2017zk. duen espedientea.


1.1. EAEKO ZEBRA MUSKUILUAREN LARBEN JARRAIPENERAKO SAREA

2017 urteko abuztua eta azaroa artean guztira 4 laginketa-kanpaina egin dira zebra muskuiluaren larben jarraipena egiteko, guztira 75 estaziotan laginak hartuz: 29 Kantauri Ekialdeko Erkidegoarteko Arroen eskumen-eremuan; beste 28 Ebroko Erkidegoarteko Arroen eskumen-eremuan; eta beste 18 Kantauri Ekialdeko Barne Arroen eskumen-eremuan, EAEko Barne arroetan.

2017 urtean lagindu diren estazio-mota gehienak ur moteleko ibai-ibilguak edo presa txikiak dituztenak izan dira (42 guztira), urtegiak ondoren (23 guztira) eta 7 baltsa eta 3 hezegun.

Banaketa espazialari, lagindutako masa motari eta laginketa-metodologiari dagokienez, aintzat hartu bada ere aurreko urteetan diseinatutako oinarrizko sarea, aldaketa batzuk sartu dira: alde batetik, espeziearen presentzia handia duten masetako estazioak bertan behera utzi dira, bai eta estazio kopuru altua duten zenbait masatako estazio batzuk ere laginketatik kanpo utzi dira; eta bestetik, estazio berriak gehitu dira, positibo berriak atzeman direlako edo eremu horietan zabalkuntza aurreikusten delako. Zebra muskuiluaren larben jarraipenerako sarearen barnean, 4 laginketa-kanpainak kontuan hartuz, 294 lagin aztertu dira guztira.

Zehaztasun gehiagorako, kontsultatu Ekolur-Anbiotek ABEEren Azken Txostena (LA20171205)



Irudia 1. 2017 urtean lagindutako 75 estazioen banaketa, mota eta eskumen-eremuaren arabera.

EKH: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, KKH: Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, URA: Uraren Euskal Agentzia

2.

Emaitza eta ondorio nagusiak

2017 urtean aztertutako 75 estazioetatik 9tan agertu dira larbak; horietako 3 urtegiako estazioak izan dira eta 6 ibaietakoak.

Aurreko urteetan Urrunaga eta Mendikosolo urtegietan espeziearen zabalkundea argia izan zenez, 2015 urtean laginketa gehiagorik ez egitea erabaki zen, informazio berririk emango ez zuelako. Arrazoi horrexegatik erabaki da 2017an ere Undurraga urtegiako larben jarraipena egiten ez jarraitzea.

2017 urtean Uribarri-Ganboan ugaldtu ziren larbak 2016an baino kontzentrazio txikiagoan ugaldtu ziren, nahiz eta aztertutako bi estazioen artean banatuago agertu (kanpaina guztietan agertu dira larbak, baita azaroan ere bai). 2017 urtean ontziralekuan dagoen estazioan (ULL-E4) larben kontzentrazioa haundiagoa da, baina presa aldeko estazioan (ULL-3) larben dentsitatea 2016 urtean baino haundiagoa izan da. Urtegiaren ur-maila bajua denean, ale helduak oso ugariak dira.

Aurten Lekubasoko urtegian (LEK-1) berriz ere antzeman dira larbak, iraileko kanpaina baino ez eta dentsitate baxuan izan bada ere. Helduen presentzia 2014 urtetik baieztatuta dago. Jarraipen sarearen barruan lehen aldiz urte horretan aurkitu ziren larbak, baina orduz gerotik ez zen halakorik berriz antzeman gaur arte.

Aurten Undabe estazioan (ZUN) berriro ere larben presentzia detektatu da, nahiz eta urriko kanpaina besterik ez izan. 2014 urteko uztailan lehen aldiz aurkitu ziren larbak estazio horretan eta, kontzentrazio baxuan egon arren, urte horretan bertan ale helduen presentzia ere baieztatu egin zen.

2017. urtean, izurritutako eremuetako ibaian beheko ibai-tarteetan zebra muskuiluaren larben presentzia izan da: Zadorra ibaian (Uribarri-Ganboa urtegian behera, Arroiabean, Gamarra Nagusian, Tresponderaino iritsiz; azken horixe izanik 2017an aurkitu den larben kokapen berria) eta Arratia ibaian (Undurraga urtegitik behera).


Larben dentsitateak aldatu egiten diren arren urteko garaia araberak, bistakoa da zebra muskuilua hedatzen ari dela, batez ere, populazio garatuak dituzten urtegietatik zabalduz eta jarraituz, nolahi ere, espezie akuatikoen edo ur-ingurunearekin loturiko espezieen (gizakiok barne) mugimenduei ibai-korridore naturaletan zehar.

Gorostiza urtegian eta Lingorta urtegian, 2014 eta 2016 urteetan hurrenez hurren, espeziea larba fasean antzeman zena, badirudi ez dela 2017an garatu urtegi horietan, ez baita halakorik berriro detektatu. Ega arroan ere ez da larbarik antzeman, 2015eko uztailean agertu baziren ere.

2017. urtean, eskaintzaren hobekuntza gisara, egin den DNAREN analisi molekularrak baieztatu egiten du Dreissena polymorpha espeziearen DNARIK ez dagoela aipaturiko kokapen horietan, alegia, EGA370-E, GOR-E eta LIN-E.

Zehaztasun gehiagorako, kontsultatu Azken Txostena (LA20171205 Ekolur-Anbiotek ABEE).

Landa-lanean jasotako datu fisiko-kimikoak (T^a , pH, oxigeno disolbatua eta eroankortasuna) ABEEren Azken Txostenean daude kontsultagai. Espeziearen garapenerako mugatzaileak diren aldagaiek (T^a eta pH) potentzial kolonizatzaile altua edo neurrizkoa agertzen dute gehienetan, azaroan tenperatura izan ezik.




Irudia 2. Zebra muskuiuaren larben banaketa EAEn. 2017. urtean

Oiartzunen, 2018ko urtarrilaren 31n



Manul Rubio Etxarte
Biologian lizentziatua
EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA SLL-ko
teknikaria



Henar Fraile Fraile
Biologian doktorea
ANBIOTEK SLko teknikaria



Alberto Aguirre Gaitero
0247 kolegiatua - Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
EKOLUR-ANBIOTEK ABEEren arduraduna